

## Kaldereroak otsailaren 1ean dira eta entsaioak datorren astean hasiko dira, Elur-Txorin

■ Entsaioak urtarrilaren 27, 28 eta 29an dira, 20:00etan ■ Afaritan izena emateko zerrenda, zabalik.

**KALDEREROAK** Hungariako bidean dira dagoeneko eta otsailaren 1ean iritsiko dira gurera. Kalderero festa dela eta Hernanin ospakizun haundia izaten da eta jende asko mugitzen da, bai Elur-Txoriko afarian, bai karrrozaren atzetik eta bai Plaza Berrian egiten den ekitaldian.

Elur-Txorri elkartea da Hernanin kalderero jaia antolatzen duena eta kaldereroetako pertsonai nagusiak ere Elur-Txoriko baxkideak dira. Dagoneko, prestaketa martxan dira eta Mikel Armendariz lehen-dakariak Kronikari adierazi dio entsaioak datorren astelehenean hasiko direla. Urtarrilaren 27, 28 eta 29an izango dira, arratsaldeko 20:00etan, Elur-Txorin bertan. Iaz, kantu guztia euskeraz izan ziren, aurreneko aldiz, aurten ere hala izango dira. Bestalde, afarirako izena emateko zerrenda Elur-Txorin jarria dago. □



Hungariako kaldereroak iaz Hernanin. Aurten ere jende asko ibiliko dute seguruena.


## Oscar Matutek (IU-EB) Hernanin hitz egingo du gaur aktualitate politikoaz

■ Hitzaldia arratsaldeko 19:30etan izango da, Biterin  
■ Hernaniko IU-EBk antolatu du

HERNANIKO Izquierda Unida-Ezker Batuak hitzaldia antolatu du gaur arratsaldeko Biteri kultur etxearen. Hitzaldian Oscar Matute IU-EBko buruzagi eta Gasteizko parlamentariak hitz egingo du, gaur egungo gai politiko nagusiei buruz: Ibarretxe Lehendakariaren elkarbizitzarako plana, Bata-sunaren ilegalizazioa, pa-

keideak, maiatzaren 25ean izatekoak diren Udal haueskundeak, Abiadura Haundiako Trenaren proiektua, etxebizitzaren egoera, Iraken kontrako gerra mehatxua eta abar.

Hitzaldia arratsaldeko 19:30etan izango da Biterin Hernaniko Ezker Batuak herriar guztia gonbidatu ditu ekitaldira. □



Oscar Matute. (Argazkia: Iñigo Azkona -Argia)

### ■ PELOTA

## Hernaniko Pala txapelketa martxan da eta izen ematea zabalik dago

HERNANIKO Binakako pala txapelketa martxan da zortigarraren aldiz, eta izen ematea zabalik dago kiroldegian. Pala txapelketa Kirol Patronatuak antolatu du eta izena emateko Hernanikoa izan behar du edo bestela kiroldegiko baxkide. Epea, otsailaren 2a bitarteko da. Inkripzioa 16 bikote osatu artekoa izango da.

Txapelketa gomazko pelotarekin izaten da eta partiduak larunbat arratsaldetan edo igande goizetan jokatuko dira kiroldegiko frontoian. Iazko txapeldunak Iñigo eta Oskar dira. □

## Arrantzako lizenziak txantxangorrin

TXANTXANGORRI elkartea adierazi du arrantzako lizenzia federatiboa atera nahi duenak Txantxangorriren bidez egiteko aukera duela. Horretarako, ostegunetan pasa elkartetik arratsaldeko 19:00etatik 20:00etara. □

## Kaxko elkartea bilera gaur

KAXKO Alde Zaharreko auzo elkartea bilera egingo du gaur, asteazkena, 20:00etan, Biterin. Bileran, bi puntu nagusi hitz egingo dituzte: batetik, Andre Kaleko inaugurazioaren balorazioa eta aurten bi kaleek festa elkarrekin egiteko proposamena, eta bestetik, Alde Zaharreko obren 3garren fasea. Obra horiek astelehenean hasi ziren.

## Bandak kontzertua

MANUEL Sagarnak zuzenduta, Musika Bandak kontzertua emanago du igande eguerdian, 13:00etan. Bandak 4 kantu interpretatuko ditu bere emanaldian. □

<b>ASTE SANTUA: AURRERATU ZURE ESKAERAK, PREZIO HOBEAK LORTUKO DITUZU</b>	
<b>LANZAROTE</b>	<b>TENERIFE</b>
Los Fiscos Hotel - MP - 419 euro + 18 TASAK	Acuario Hotel - PC - 351 euro + 18 TASAK
Beatrix Hotel - MP - 499 euro + 18 TASAK	Las Dalias Hotel - MP - 423 euro + 18 TASAK
<b>MALLORCA</b>	
Sta. Ana Hotel - MP - 334 euro + 18 TASAK	PUTZUETA HARATEGIA - URDAITEGIA
Cadena Sol - MP - 323 euro + 18 TASAK	
<b>HERNANI BIDAIAK</b>	Kardaberaz 39 Tel: 943 55 27 87 20120 HERNANI
<small>Urbia etorb. 6 - ☎: 943 330049 - 330174 e-mail: hernanib@teleline.es Konponketa lanak direla eta, kalean beste aldean gaude, bolada baterako.</small>	<b>DORRONSORO</b> OKINDEGIA

**PUTZUETA**  
HARATEGIA - URDAITEGIA

Kardaberaz 39  
Tel: 943 55 27 87  
20120 HERNANI

**DORRONSORO**  
OKINDEGIA

J.DORRONSORO OKINDEGIA, S.L  
Lizeaga, 7 ☎ 943 33 36 18 -20120 HERNANI

Bertan egindako kalitatezko ogia



Umeek ipuinez Ipuin erakusketa ikusi eta ipui liburuak irakurtzen, Biterira egindako bisita batean.

## Umeek ipuinez Ipuin erakusketa ikusi eta ipuiak adituko dituzte gaur ere Biterin

■ Gaurko azken aurreko bisita izango da eta Langile ikastolako umeen txanda izango da ■ Ipuinez Ipuin erakusketa urtarilaren 31 arte dago zabalik, 18:00-20:00etara.

GALTZAGORRI taldeak Biterin jarritako ipuigintzari buruzko erakusketa aurrera dijoi eta ikastetxeetako umeak ditu jarraitzaile finenak. *Ipuinez Ipuin* erakusketa Euskal Herriko eta kanpoko ipuin biltzai-leak ezagutzeko aukera ematen du, Biterin jarritako 17 panteletan. Hor daude Maddi Aristi, Resurrección María Azkue, Joxe Migel Barandiaran, Jacob eta Wilhem Grimm, Lau-reano Prieto eta abar 16 ipui biltzaleen bizitza eta lanekin.

**Erakusketa ikusi eta ipuiak entzun**  
Ipuinez Ipuin erakusketa dela

eta, Udal Liburutegiak lan bereria egin du ikastetxeen. Denera, 12 ikasle talde pasako dira hilabete honetan, eta gaur bertan Langile ikastolako bi talde pasako dira. Taldeak 25 ikaslekoak dira gehienera, beti ere arreta hobea jartzeko modua izateagatik. Ikasleek lehenbizi erakusketa ikusten dute Galtzagorriko begirale batek lagunduta. Ondoren, berriz, liburutegira igo eta ikasleek ipuin kontaketa saioa entzuten dute. Ray Bueno, Itziar Zubizarreta eta Isabel Agirresarobe dira kontalari- etako batzuk. Aurreko ostegunean, umeek Euskadi Irra-

tiaren bisita ere jaso zuten.

Gaur Langile ikastolako umeak joango dira bi txandean, goizeko 09:30etan eta 10:45etan. Urtarrilaren 28an, berriz, Urumeako ikasleak emango diote errematea era-kusketari.

### 31ean hilabeteroko ipuin kontaketa, Liburutegian

Ipuia ez dira erakusketa batek laugunduta. Ondoren, berriz, liburutegira igo eta ikasleek ipuin kontaketa saioa entzuten dute. Ray Bueno, Itziar Zubizarreta eta Isabel Agirresarobe dira kontalari- etako batzuk. Aurreko ostegunean, umeek Euskadi Irra-



Umeak Pello Añorgaren ipuian entzuteko pronto Liburutegian.



Andragoto lokal berria, hilaren 15ean inauguratu zuten.

## 'Andragoto', lokal sozial eta kulturala, alkoholik gabe

JOAN den aste honetan lokal berri bat zabaldu dute Hernanin, Izpizua kalean. *Andragoto* du izena (Inkisizioak hil-dako sorgin baten izena) eta hiru gaztek jarri dute martxan. *Andragoto* 210 metroko lokal da eta bi planta ditu.

Proiektu berri hori martxan jarri dutenen esanetan, "kezkaz betetako eta kolore askotako mundu honetan lokal berria sortu da, musika, artea, kontrainformazioa, eta sormena biltzen dituena; errealtitate eta

kolektibo guzientzako dago zabalik eta espazio bizi bat da" Lokalak liburuak eta aldiakariak ditu eta irakurtzeko giro la-saia eskaintzen du. Edateko, batido, infusio, kafe, zumo eta abar daude aukeran, alkoholik gabeko edariak.

Aurrera begira, pintura, argazki edo eskulan erakusketak jartzeko asmoa ere badute *Andragoton*, eta hiltzaldi eta mahai inguruak ere bai. 15:30-estatik 23:30etara dago zabalik, eta astelehenetan itxita. □

### ■ BOLA - ERREGULARITATE TXAPELKETA

## Migel Burugain bigarren Benta Berrin, Erregularitateko aurreneko tiraldian

■ Antonio Alustizak irabazi zuen eta hernaniarrak orokorrean pattal antxean ibili ziren aurreneko tiraldian.



Migel Burugain, ezkerretik bigarrena, bolarri begira.

### ZERBITZUAK

#### ☎ TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYA: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103

#### + FARMAZIAK

- Egunez: Gomez  
Kale Nagusia 14  
☎ 943 554892
- Gauzez: Oa  
Usurbil. Polígono 1, 1  
☎ 943 376076

### IRAGARKI MERKEAK

Lizeaga kale inguruan GARAJEA erosiko genuke. Deitu: 609 543 900